



12/2018 TXOSTENA, EKAINAREN 26koa, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA

HELBURUA: HORNIDURA-KONTRATUKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIAREN ZIRRIBORROA (PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA)

I.- AURREKARIAK.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) nobedade nagusietako bat izan zen prozedura ireki sinplifikatua txertatu zuela, bi modalitatetan: «Ohikoa» eta «laburtua» edo «prozedura ireki supersinplifikatua».

Hori dela-eta, prozedura irekirako agiri moten ereduak egokitu egin behar dira, prozedura sinplifikatuak dituen berezitasunekin; izan ere, berezitasun horiek sakonekoak ez badira ere, eragina dute zenbait alderditan: lizitazioan parte hartzeko baldintzetan, esleipen-irizpideetan, gutun-azal edo fitxategi elektronikoak irekitzeko prozeduran eta epeetan edo bermeetan.

Horregatik prestatu da esku artean dugun eta batzorde honek ezagutzera ematen duen Administrazio Klausula Berezien Agiriaren zirriborroa.

II. – ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK. TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eskumena du Administrazio Klausula Berezien Agiriaren zirriborroari buruzko txostena emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 4. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu horren 30. artikulua arabera, Aholku Batzordeari dagokio dokumentu horren gaineko txostena emateko eskumena.

III. – EDUKIA.

Eduki hau du testuak: Kontratuaren klausula bereziak, Baldintza orokorrak eta Eranskinak.

Kontratuaren Klausula bereziak hiru bloketan egituratuta daude (Prestazioaren ezaugarriak, Prozeduraren ezaugarriak eta Beste zehazpen batzuk).

Kontratuaren baldintza orokorrak honela banatuta daude: Kontratuaren xedea eta gai orokorrak; Lizitazioa; Gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak balioztatzea; Kontratua esleitzea eta formalizatzea; Kontratua gauzatzea; Iraungitzea; eta Gorabeherak eta egintzen berrikuspena.

Azkenik, kontratazio-prozesuan laguntzeko zenbait eranskin ere badaude, honako hauek argitze aldera: agiriaren alderdi jakin batzuk gauzatzeko zer informazio ekarri behar den; gutun-azal bakoitzean zer dokumentazio sartu behar den eta eskaintza onena duen lizitatuak edo gauzatu ari den kontratistak aurkeztu beharreko dokumentazioa. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat txertatzen da, dagokion lege-agindua markatzen duten edukiei jarraikiz.

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Agiri-proposamen honetan betetzen den arau-esparruari dagokionez, Europar Batasunak kontratazioaren alorrean emandako Zuzentarauak dira arau-esparru hori; ikusiko dugun bezala, horien transposizioa egin da partzialki, baina kontratazio-agiri guztien eraketa gailendu behar dute haren printzipioek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzendaraua, emakida-kontratuei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzendaraua, Kontratazio Publikoari buruzkoa eta 2004/18/EB Zuzendaraua indargabetzen duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzendaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeek egindako kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzendaraua indargabetzen duena.

2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentaruaren transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiteko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (aurrerantzean, SPKL) agindutakoarekin bat dator testua, baita lizitazio publiko bat prestatzeko eta argitaratzeko beharrezkoak diren agiriak egiteko ezartzen duenarekin ere. Bereziki garrantzitsua da testu horren 159. artikuluan ezarritako erregulazio zehatza.

Halaber, SPKLak indargabetzen ez duen guztian, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua ere betetzen du.

Horretaz gain, hau ere betetzen da: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, indarrean egoten jarraitzen duen guztian, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren hainbat manu aldatzen duen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretua onetsi zenez geroztik (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu orokor hori).

Kontratazio publikoan eragina duten lege- eta erregelamendu-xedapen hauek ere kontuan hartu dira:

- 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioarena.
- 55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa.

V.- ONDORIOAK.

Hori guztia kontuan hartuz, aldeko txostena eman zaio honako honi: hornidura-kontratuko Administrazio-klausula partikularren Agiriaren zirriborroa (prozedura ireki sinplifikatua), azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) eta aipatutako gainerako araudira egokitua.